

**Ekitaldian "lanean bikain jardun" izana nabarmendu du Taldeko CEOak**

## **EROSKI-K 109 MILIOI EUROKO EMAITZA POSITIBOAREKIN AMAITU DU 2023KO EKITALDIA**

- **Ebitda-k 331 milioi euroak gainditu ditu, prozesu guztietan eraginkortasun neurriak aplikatu direlako**
- **Salmenta gordinak 5.729 milioi eurokoak izan dira**
- **EROSKIk marjina gordina txikitzen jarraitu du, kostuen igoerak prezioei hainbeste ez erasateagatik**
- **2023an, EROSKIk 500 milioi euroko bonu jaulkipen bat osatu zuen, eta sindikatutako zor guztia aurretiaz amortizatu**
- **EROSKI S. Coop. kooperatiba nagusiak 79 milioi euroko etekinekin itxi zuen ekitaldia**

**Elorrio, 2024ko maiatzaren 8a.-** [EROSKI Taldeak](#) 109 milioi euroko emaitza positiboarekin amaitu du 2023ko ekitaldia, kontuak 2024ko urtarrilaren 31n itxita; salmenta gordinen % 1,89 da hori. 259 milioi euroraino igo zaizkio etekin operatiboak; beraz, 2022aren aldean, %26,9ko igoera izan du.

Jardueraren bolumena ere handitu egin zaio, 5.729 milioi euroko salmenta gordinak izan baititu (%6,3tik gorakoak aurreko ekitaldiaren aldean), nahiz eta marjina gordinaren ehunekoa gutxitu egin duen oraingoan ere —aurreko ekitaldian hasi zen kostuen igoera salmentako prezioei ez erasateko helburuarekin—. Hala, ehunekoetan 1,2 puntu apaldu da guztira 2022-2023ko aldian. Ahalegin horren ondorioz, dagoen eskualde guztietan hobetu du nabarmen elikagaien banaketaren jardura.

Hori nolako testuingurutan gertatu den azaldu du taldeko CEOak, Rosa Carabelek: *"Kostuek gogor handitzen jarraitu dute, bai saldutako produktuenak eta bai jardura garatzeko beharrezkoak diren zuzeneko zerbitzuak; hori ikusirik, kudeaketan eraginkor jardun gara, eta aurrerabide esanguratsuak ez ezik lan bikaina egin dugu inflazio aldi honetan; esan daiteke aplikatu ditugun estrategiek erantzuna eman dietela gaur egungo erronka ekonomikoari. Horretarako, funtsezkoa izan da eginahala eraginkortasunean jartzea. Horri esker, sendotasunez kontrolatu eta hobetu ditugu gastuak, baita gure plataformen produktibitatea eta efizientzia ere, eta horniketa kate osoarena. Optimizazio horrek indartu egin du EROSKIren posizioa bai prezio aldetik eta bai erakargarritasun komertzialaren aldetik".*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Horren guztiaren ondorioz, %18 inguru hobetu zen *ebitda*, 331 milioi euroetaraino; salmenta gordinen gaineko ratioa, berriz, %5,77koa izan zen, aurreko ekitaldikoa baino lau hamarren gorago.

### Finantza egitura berria

2023ko hirugarren hiruhilekoan, EROSKI taldeak epemugara heldu aurretik amortizatu zituen 703 milioi euro, 2019an hitzarmena izenpetuz geroztik indarrean zen zor sindikatu guztiari zegokiona, eta bere finantza egitura birdefinitu zuen, arrakastaz itxi baitzuen 500 milioi euroko zenbateko nominaleko bonu jaulkipen bat, zeina eskusiboki inbertitzaile instituzionaletan kokatu den. Jaulkipen hori osatu egin da EROSKIri laguntzen jarraitu duten hainbat finantza erakundek egindako ekarpenekin. Prozesu horrek errepikariak ez diren gastu jakin batzuk ekarri zituen, ekitaldiko finantza gastuen igoera hein handian azaltzen dutenak.

### Inflazioa arintzeko jarduketak: 384 milioi euroko aurrezki transferituta

2023an ere ez da inflaziorik eten ez janaritan eta ez ustiapen kostu zuzenetan. EROSKI beste urte batez saiatu da ahal zuen neurrian salmenta prezioetan ez erasaten haren eragina, eta merkatuari 384 milioi euroko aurrezki transferitu dio askotariko ekimen komertzial, eskaintza eta deskontu pertsonalizatu eta eskusiboen bidez. Horretarako, bere fidelizazio klubak ez ezik familiei loturiko aurrezpen eta etekin planak baliatu ditu. Testuinguru ekonomiko horretan, EROSKI erakutsi du beste behin erantzukizun eta konpromiso maila handia duela kontsumitzaileekin.

<b>EROSKI TALDEAREN USTIAPEN KONTU KONTOLIDATUETATIK</b>			
<b>ateratako datuak</b>			
<b>milioi eurotan</b>			
	<b>2024/01/31</b>	<b>2023/01/31</b>	<b>Bariazio %-a</b>
SALMENTA GORDINAK (BEZ-AREKIN)*	5.729	5.389	+ %6,31
EBITDA	331	280	+ %18,21
ETEKIN OPERATIBOAK	259	204	+ % 26,96
<b>ZERGA ONDORENGO EMAITZA</b>	<b>109</b>	<b>64</b>	<b>+ %70,31</b>

\* Salmenta gordinetan sartzen dira Eroski bidaiek emandako zerbitzuengatik izan diren sarrerak. (2023an otsaileko hila bakarrik erantsi da)

\*\* Ibilgetu salmenten emaitzaren eta aktibitate ez-korronteen, narriaduren, finantzarioen eta zergen aurretik.

#### EROSKI

Komunikazio Korporatiboa  
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

## **Hazkuntza, berrikuntza eta elkartasuna**

EROSKik jarraitu zuen bere sare komertziala handitzen 2023an: beste 74 supermerkatu propio nahiz frankiziatu berri ireki zituen eta gasolindegi bat; eta bere presentzia handitu zuen eskualde hauetan: Andaluzia, Aragoi, Balearrak, Katalunia, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Valentzia, Extremadura, Galizia, Madril eta EAE. Era berean, jarraitu zuen bere sare komertziala berritzen eta egokitzen, eta eraldatu egin zituen zortzi hipermerkatu, 62 supermerkatu propio, sei supermerkatu frankiziatu eta bederatzi optika.

Horretaz gainera, taldeak 15 milioi euro bideratu zituen berrikuntzaren eta garapenaren alorreko proiektuetara. Iazko ekitaldian, EROSKik berrikuntzaren alorreko 31 ekimenetan parte hartu zuen; horietatik hamar Europako zentro teknologikoekin, unibertsitateekin eta *start-up* enpresekin egindako lankidetzak proiektuak izan ziren.

EROSKI taldeak 2023an gizarteari egindako ekarpenei dagokienez, 23 milioi eurokoak izan ziren, kontsumitzaile bazkideen eginahalagatik eta instituzioen eta administrazioen elkartasun txartelaren bitartez egindako kolaborazioengatik eta EROSKik eta EROSKI Fundazioak emandakoagatik, bi euro eman baitzituzten bezeroek emandako euro bakoitzarekin batera. Funtse horiek elkartasuneko eta gizarte ekintzako proiektuetarako bideratu zituen, hala nola beharrezko diren familiei eta kolektiboek laguntzeko, kontsumitzaileei formazioa eta informazioa emateko, eta kultura, aisia eta ingurunea indartzeko.

## **Kooperatibak 79 milioi euroko etekina izan du**

EROSKI S. COOP. kooperatiba matrizearen jardura bolumena %16,66 igo zen 1.969,7 milioi euroetaraino; zeinak 79 milioi euroko emaitza positiboa aurkeztu baitzuen – aurreko ekitaldiko garai berean 32 milioikoa izan zen–.

EROSKik 595 pertsona erantsi zituen 2023an bazkide kooperatibisten multzora. Kontseilu Errektoreak etekin ia guztia kooperatibaren funtsak indartzera bideratzea proposatuko du datorren Batzar Nagusian.

## **EROSKI taldeari buruz**

EROSKI Espainiako lehen banaketa talde kooperatiboa da, eta liderretako bat Espainia iparraldeko merkatuan –Galiziatik Balearretara–, %12,8ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2023aren amaieran, 1.533 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta *online* supermerkatuak, baita gasolindegiak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

beste negozio batzuk ere. Halaber, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, 27.400 Bazkide Kooperatibista eta Langile Bazkide baino gehiago, horietatik 9.000 sozietatearen jabe ere badirenak; eta 620 denda frankiziatuetako langileen kolektiboa gehitu behar zaio horri.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa

PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)